



1.- SARRERA

Proiektu honen hartzaileak Mendebaldeko Saharako biztanle errefuxiatuak dira. Laburpen kronologiko bat egingo dugu Mendebaldeko Saharako biztanleak errefuxiatu izatera nola iritsi diren ulertu ahal izateko.

Espainiak XV. mendeaz geroztik erakutsi izan du lurralde horrekiko interesa, eta 1860an Marokorekiko gerra amaitutakoan, espainiarrek Tetuan lurraldea bereganatuta, errazago egin zitzaizen Saharako lurretara hurbiltzen hasia. 1885ean Espainiak Saharako lurra bere lurraldetzat aldarrikatzen zituen arren, 1934ra arte ez zen okupazioa gauzatu. Ondotik, Marokok ere Mendebaldeko Sahara Maroko Handiaren atal gisa aldarrikatu zuen. 1967an Nazio Batuen Erakundeak lurraldea deskolonizatzea gomendatu zuen arren, orduantxe hasi zen Mauritania ere lurraldea beretzat eskatzen. Gauzak horrela, Mendebaldeko Saharan independentziaren aldeko haizea harrotzen hasi zen, eta 1968an *Movimiento de Liberación de Saguia el Hamra y Rio de Oro* izeneko mugimendua sortu zen, 1973an, berriz Frente Polisarioa sortu zen Mendebaldeko Sahararen independentziaren alde borrokatzeko, eta Espainiaren aurkako borroka armatuari ekin zioten. 1975eko azaroan, Marokok, Estatu Batuen oniritziarekin, Martxa Berdea bidali zuen Mendebaldeko Saharako mugak gainditu eta lurraldea hartzeko, eta urte horretan bertan, Madrilgo Akordioak deiturikoen arabera, lurraldea hiru administrazioen pean geratu zen (Espainiak, Mauritania eta Maroko). 1976an, Espainiak lurraldea beste bien agindupean utzi zuen eta bi herrialde horiek lurraldea okupatu zutenean, Frente Polisarioak Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zuen eta bi lurralde horien aurkako gerra piztu zen. 1979an Mauritania erretiratu egin zen eta Frente Polisarioarekin bakea sinatu zuen, eta lurraldea eskuratzeko nahiei uko egin zien. Marokok aldiz, Estatu Batuen laguntzarekin lurraldea indarrez hartu zuen; saharauiak napalm eta fosforo zuriz bonbardatu zituzten, eta horrek saharaui askoren ihesaldia eragin zuen. Bonbardaketa haien ondorioz, saharauiak Aljeriarantz egin zuten ihes, eta ihesaldi horretatik



sortu ziren gaur egun oraindik, 40 urte geroago, zutik dirauten Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduak. Horiexek dira, hain zuzen, proiektu honen onuren hartzaileak.

Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetan gaur egun 150.000 biztanle inguru bizi dira, biztanle horietako asko hirugarren belaunaldia dira, eta ez dute inoiz euren lurra ikusi. Kanpalekuak *hamada* deituriko basamortu eremuan daude, basamortuko lekurik gogorrean. *Jaimatan* bizi dira, nahiz eta azken urteotan adobez egindako etxetxo

modukoak ugaritzen hasi diren; hala ere, bizi-baldintzak benetan gogorrak dira, udan 50 gradutik gorako tenperaturak pairatu behar izaten dituzte, apenas dago urik, ez dago elektrizitaterik (orain wilaya batzuetan badute) eta eskura dituzten elikagai bakarrak laguntza humanitarioaren bidez iristen zaizkie. Zenbait erakunderen arabera, emakumeen bi heren anemiak jota daude eta umeen heren batek desnutrizio kronikoa du. Kanpalekuetako biztanleak egoki egituratuta dauden arren, gabeziak oso handiak dira eta asko dira nazioarteko laguntza behar duten eremuak. Kanpamenduak lau wilaya (probintzia) nagusitan antolatuta daude: Ausserd, Smara, Dakhla eta El Aaiun. Gune administratiboa Rabunin dago, eta bertan dute antolatua SEADen gobernua eta Frente Polisarioaren egoitzak.

3.- KANPALEKUETARA JOAN AURREKO AHOLKUAK

Ezertan hasi aurretik, saharaiuen artean bizi daitezkeen esperientziak guk proposa edo antola dezakegun edozer baino aberatsagoak izan daitezkeela nahi genuke azpimarratu. Dena dela, benetan jarraitu beharreko araua **zentzuz jokatzea** da, bai Saharan bai beste edonon pertsonen arteko harremanak zuzendu beharko lituzkeen araua baita hori. Gogoan izan, bistakoa den arren, desberdintasunak desberdintasun, gizon eta emakume saharaiak pertsonak direla gu garen neurri berean. Haien sentitzeko, pentsatzeko eta espresatzeko bideen artean geure gizartean bezain besteko aniztasuna aurkituko duzu.

Era berean – bidaian zehar askotan ez dirudien arren-, gogoan izan errefuxiatu kanpamendu batetara goazela. Haur, emakume zein aitona-amona orok, gerra, gose eta gaixotasun istorioa du atzetik. Atzerriak, gerrak, goseak eta gaixotasunak hautsitako familiak dira. Lanean, kantuan, ikasten edo jolasean ikusiko dituzun horiek, ezer ez dagoen tokian aurrera egin dutenak dira. Bizimodu horiek sustengatzen dituzten elementu guztiak *-jaimak*, eraikuntzak, argindarra, jantziak, ura, botikak, telefonoa eta abar-, ez ziren bertan herri saharaiak erbesteratu aurretik. Hura zen Hammadā, desertuko zonalderik latzena, nomadek ere saihesten zutena, bertan bizitzea ezinezkoa zelako.

Ezinezkoa zena posible bihurtzeko saharaiuen gaitasun horrek – emakumeengan bereziki nabarmena-, errefuxiatuen artean gaudela ahaztu arazten digu askotan. Horregatik, gure artean normalak eta eskuragarriak diren ondasun edo baliabideak eska ditzakegu, haientzat ondasun horiek lortzea oso zaila edo garestia gerta daitekeela konturatu gabe.

Herri saharaiak ezaguna du bere abegikortasuna. Beharrik sortzen bazaizu edozer egingo dute zure behar hori asetzeko, baina beti ez da posible izango. Hortaz, lehenengo gomendioa da bidaian zehar **beharko dituzun gauzengan ondo pentsatzea** eta, posible baduzu behintzat, etxetik eramatea.

Ez ahaztu errefuxiatu saharaiak aljeriar estatuak behin-behinen utzi dien lurralde batean bizi direla. Arlo askotan, azpiegiturei begira batez ere, Aljeriaren menpe daude. Esan beharra dago Algeria oso eskuzabala izan dela saharar herriarekin, baina hala ere, azken aldian egoera politiko delikatuak bizitzen ari dira Aljerian eta administrazio sistema nahiko konplexua dute gure pentsamoldearekin alderatuta. Bidaiarekin zuzenean lotutako kontuak -hegaldien baldintzak, aduanak pasatzeko erraztasun edo zailtasunak eta abar-, aljeriarren erantzukizun dira, ez saharaiuenak.

Tindoufeko aireportua aireportu militarra da, beraz, **ezin da inolako argazki edo bideo grabaketarik egin.**



Rabuniko zonaldean (harrera-gunea eta ministerioak) 220Vko sare elektrikoa dago eta wilayetan gasoliozko generadoreak, zure eguneroko behar gehienak aseko dituztena. Hala ere, **pilak eta ordezeko bateriak** eramatea komeni da, kanpamenduetako argindar sarearen menpe ez egoteko.

Saharauen abegikortasunaren araua apopiloaren ongizatea edozeren gainetik bilatzea da. Haragia, fruta, berdura, freskagarriak normalak dira gonbidatuarentzat, baina oso arraroak saharauen eguneroko dietan. Edozergatik ezin badugu jakiren bat jan, naturaltasunez esan eta kito. Baina behar berezirik baduzu ez espero anfitrioien esku egon daitezkeenik. Jaki bereziren bat eraman behar baduzu kontuan izan kanpamenduetan ez dutela hozkailurik eta hortaz kontserbazioa eta iraupena mugatuta egongo direla. Bidaiaren baldintzak ere zailtasun asko sortzen du arlo honetan. Jaki edo osagarri berezirik hartu behar baduzu ez da komeni taldeko otorduetan nabarmentzea. Pribatuan eta konfiantzazko jende artean ia dena onartzen den arren, alkohola edo txerrikiak saharauen kulturarekiko iraintzat hartzen dute askok oraindik ere. Hala ere, normalena da diskrezioz hartuz gero inork ezer ez esatea.

Saharauientzat, aurrera ateratzeko gakoa **pazientzia** da. Pazientziarik gabe aspaldi amore emango zuten gerrak eta naturak ezarritako baldintza gogorren aurrean. Oso mesedegarria da guk ere horrela jokatzeko, pazientziaz. Kanpamenduetako egonaldia estresaren aurkako sendabide bezala har ezazu. Lasaitu, eta beraien konpainiaz gozatu, elkarriketaz, begien hizkuntza praktikatu, desertuan isiltasuna entzuten ikasi, beste edonon baino izar gehiago duen zerua ikusteko aprobetxatu, ez presarik izan eta guri irakasteko asko duen herri bat deskubrituko duzu. Kanpamenduetan edozein gestio, edozein mugimendu hainbat faktoreren menpe dago, eta beste hainbeste giza borondatez egiten da, beraz, plan aldaketak eta halakoak oso ohikoak dira, ez larritu.

Azken gomendio bat, lehena bezain nabaria dena baina askotan ahazten duguna: gure etxetan besteek egitea gustatuko ez litzaiguen guztia saihestea.

Ondoren interesgarriak izan daitezkeen **DATU PRAKTIKO** batzuk aipatuko ditugu:

Zer eraman

- **Arropa eroso eta freskoa** eraman, baina gorputza ondo estaltzen duena ("kagauak", mallak, txandalak...).
- **Oinetako eroso eta freskoak**, lur irregularretan erabili ahal izateko (kirol oinetakoak, sandaliak)
- **Beroki arin bat ondo dator iluntzetan.**
- Estalita egongo ez diren gorputz ataletan (aurpegi, oin, ezpain) emateko **babes-krema bat eramatea komeni da**. Baita **bururako (bixera, zapi...)** ere. Eta komenigarria da oso **eguzkitako betaurrekoak** eramatea, argitasun handia izaten da eta.
- **Nezeserrean** eguneroko garbiketarako beharrezko ditugun elementu **guztiak** eraman behar ditugu (xaboia, xanpua, hortz pasta eta eskuila...), baita erabilpen berezietarako krema, pomadak eta abar. Beharrezko dituenak **bizarra**



mozteko gailuak, tanpoiak, konpresak eta orokorrean lortzeko zaila izan daitekeen edozer eraman beharko ditu. Komenigarria izan daiteke ere toaila bat eta dutxarako **txankletak** eramatea (crocs modukoak oso erosoak dira, jaimetan sartu-atera ibili behar denerako). Nahitaezkoa ez den arren, **toallatxo freskagarriak** eramatea ez legoke sobera, oso praktikoak dira.

- **Linterna** eta **erabilpen anitzeko labanak** oso erabilgarriak dira kanpamenduetan.

Ez ahaztu nezeserrean maiztasunez erabiltzen dituzun botika edo osagarriak sartzea (bitaminak, analgesikoak, azidoaren aurkakoak, beherakoaren aurkakoak...). Gaixotasun kronikorik edo alergiarik baduzu ez ahaztu botikak eramatea.

Ekipajea biltzeko orduan nazioarteko arauak kontutan hartu (ebakitzen duten elementuak fakturatzen den maletan sartu behar dira, ezin dira aerosolak eta abar sartu). Maleta edo poltsa ondo "prezintatuta" eramango dugu, eta ondo identifikatuta:

Ipini poltsa bakoitzean kartel bat datu hauekin:

ZURE IZENA (eta nahi baduzu, argazkia)

WILAYA: El Aaiun

DAIRA: Amgala

Telefono zenbaki bat

Aljer eta Tindoufera heltzean eta irtetean immigrazio orri bat bete behar da.

Euskal Herritik goazenok ez dugu inolako txertorik ez osasun ziurtagiririk behar.

Dirua

Aljeriako moneta ofiziala dinar-a da. **Euro bat 140 dinar** dira gutxi gora behera. Kanpamenduetan bi monetak erabiltzen dira. Oso diru gutxi behar da bidaiarako, egonaldia eta otorduak bermatuak daude eta; kanpamenduetan sortzen hasi diren denda txikietan kapritxo edo orogarriren bat erosteko, edo harrera gunean langileek kudeatutako kafetegian zerbait hartzeko bakarrik beharko duzu.

Gehienez 30€ eramatea da gure aholkua

Osasuna

Prebentziorako oinarrizko arauak eguzkitatik babestea, deshidratazioa ekiditea eta botilaratutako ura edatea dira. Osasun arazo ohikoenak beherakoak, intsolazio eta erredurak, eta traumatismoak dira. Eguzkitatik babestu, ura edan egarri edo gose ez bazara ere. Edozein arazo izanez gero kanpamenduetan osasun sare ezin hobea dago



eta taxuz zainduko zaituzte. Bidaiako kideei jakin arazi egoera berezirik baduzu (alergiak, gaixotasunen bat...).

Botikinean beherakoaren aurkako botikaren bat sar dezakezu (Fortasec adibidez), parasetamola edo ibuprofenoa mina edo sukarraren aurka, kolirio naturala, ebakidurentzat antiseptiko bat, bendak eta tiritak. Eta erregulartasunez hartzen dituzun botika guztiak, noski.

Ohiturak

Azken denboraldian Islamaren adar atzerakoien eragina kanpamenduetako biztanleriaren zati batean eragina izaten ari bada ere, inguruko herrialdeekin alderatuta herri saharaiaren liberalismoa harrigarria gertatzen zaio bidaiariari.

Errespetuz eginez gero, ez duzu inongo arazorik izango edonorekin edozertaz hitz egiteko. Adinekoek paper berezia jokatzen dute gizarte saharaiaren eta errespetu berezia zor zaie. Emakumeak kanpamenduetako gizartearen euskarri izan dira, eta oraindik ere hala dira, beraiek baitira eguneroko kudeaketaz arduratzen direnak.

Tea kanpamenduetako bizitza sozialaren erdigunea da. *Jaiman* tea konpartitzea hizketarako aukera bat da, eta aisialdi luzeak pasatzeko modu bat. Beroa hartzen da, azukre askorekin, eta hiru txandatan (hiru edalontziak).

Janaria

Han eskainiko diguten janaria ez da ohituta gaudenetik hain desberdina izango; gosaltzeko, kafe-esnea, galletak edo ogia, marmelada eta gurina, jogurtak. Bazkaltzeko eta afaltzeko: patata frijituak, arrautzak, arrosa, ahuntz-okela, gamelu-okela, entsaladak (etxeetan zainduko dute ondo garbituta egotea, baina hala ere, kontuz barazki gordinekin!!), pasta, lentejak... Edateko, botilako ura, freskagarriak eta zukuak.

Gogoan izan zuri eskainiko dizuten janaria laguntza humanitariotik jasotzen dutena dela. Beste gauza batzuk erosi egingo dituzte zure egonaldia atsegina izan dadin. Saia gaitzen ahalik eta eskerronekoen izaten eskaintzen digutenarekin.

Amaitzeko, gogoratu benetako lana itzultzen garenean hasiko dela: gure ingurukoei bizi izan dugun horren berri emanez, Sahara eta saharaiaren alde antolatzen diren ekintza eta ekitaldietan parte hartuz eta abar... finean, herri hori bizitzen eta sufritzen ari den errealitatea jakinarazten laguntzen.

Ondo pasa.

